

Donostia'n, mila bederatzireun eta berrogetabederatzi'garren urteko Epaila'ren ogetabostean, Ekauta-jauregian, Azkue jauna maipuru dala ta Urkijo, Etxaide, Irigaray, Krutwig ta Oleaga euskaltzainak bertan dirala, egiten da Euskaltzaindiaren il onetako batzarra.

Araudizko otoitzaz emoten dako asiera, ta urrengo, lenaurreko batzar-agiria irakurri da, ta aobatez onetsia izan da.

Gero Bruxelles'en, aurtengo Garila'ren 15-19'etan batuko dan Toki ta Gizonen izenazko irugarren Batzarrerako, Euskaltzaindia'ri egin yakon deia irakurri da. Orde-laririk ezin bidaldu izango dan arren. Euskaltzaindia'ren onetsi-erakusmena bidaltzea erabagi da.

Urrengo, aratu da Pedro Zabala Garay Bergara'tarrak toki-izenaz egindako lan astuna ta sakona. Poz-pozik ikusi da ta txalogarri eretxi da. Berau dala-ta, aitatuko yaunari aurrerantzean Urgazle izan dadila ebatzi da.

Baita, Bizente Saralegui baztandar euskaltzalea bere, Urgazletzat artzea erabagi da.

Krutwig yaunak "Estudios Vascos de Filologia comparada" deritxon lantxo bat dirakur. Atseginez entzun da.

Gero Irigaray yaunak adierazoten dau Eladio Esparza napar-euskaltzain izentaturiko yaunak esan dautsola bere zereginak eta beste eragozpen batzuk eztautzela leku emoten Euskaltzaintzean bear leiteken adikuntzea iminteko ta berau dala-ta, ardura ori itxi bearrean dala. Beraz, Euskaltzaindiak ontzat artzen dau Espartza jaunaren erabagi ori, ta aurrerantzeko Urgazletzat artzea ebatzi dau.

Espartza jaunak Euskaltzaindian izten dauan utsa betetako Joane Migel Seminario de Rojas, napar-euskaltzale bikaina, izentatzen da.

Bonifazio Etxegaray euskaltzainari bere euskaltzaintzeari eragon dakiola eskatutea erabagi da.

Azkenez, Iztegi-batzordeko lagunak adierazoten dabe, euren lanean diardueta ta F izkia amaitutzat itxi dabela.

Beste barik eta araudizko otoitzaz emon dako batzarrari amaiera.

Euskaltzainburua
Resurreccion M.^a Azkue

Zadorlaria
Nazario Oleaga